

## TPV Diruanitza (DCC)


Kutxabank TPVari esker, gure saltegiek atzerriko bezeroen herrialdeko dibisan ordaintzeko aukera eskaintzen dute. Eragiketa horretan, Kutxabankek %3ko komisioa kobratuko du eta saltegia deskontu-tasa mugatuaz aprobetxa daiteke. Eragiketa hau Visa eta Mastercard txartelekin baino ezin da egin.




### FUNTZIONAMENDUA



TPV-ak txartela eurotan jaulki ez dela eta DCCren bidez salerosketak egin daitezkeela ikusten du.



Terminalak eurotan edo txartelaren jatorrizko dibisan (DCC) ordaintzeko aukera eskaintzen dio zure bezeroari. Gainera, salerosketaren kostuaren berri ematen du (bai



Jatorrizko dibisan ordaintzea erabakitzen badu, bezeroak izenpetu behar duen tiketean, dibisaren arabera zenbatekoarekin batera, ezarritako komisioa eta trukenerria agertuko dira.

### Bezeroentzako onurak:



#### Hautatzeko aukera:

Bezeroak eurotan ala bere dibisan ordaintzea erabaki dezake. Dibisan egitea erabakitzen badu, salerosketaren datatik hilabeteko epea dauka erabakiz aldatzeko eta eurotan ordaintzeko.



#### Aurrezkia:

Salerosketak ekartzen duen komisioa txartelaren jaulkitzaileak euroaren eta bere dibisaren arteko bihurketa egiteagatik ezarritakoa baino txikiagoa izaten da.



#### Gardentasuna:

Zure bezeroak bere bankuak kontuan zordunduko dion zenbateko zehatza ezagutuko du, trukaneurria eta komisioa zehaztuta.

### Saltegiarentzako onurak:



#### Aurrezkia:

Kostuak aurreztuko dituzu horrelako salerosketetan deskontu-tasa txikiagoa ordaintzean.



#### Erraz-erraza:

Zerbitzuan alta egitea erraza eta doakoa izateaz gain, ez du eskatzen TPVa aldatzea.



#### Balio erantsia:

Txartela kobratzeko zerbitzua osatuagoa da eta saltegiaren irudia nabarmentzen du.



#### Gardentasuna:

DCC salerosketak eurotan likidatzen dira eta modu berezian identifikatuta daude TPVaren funtzionamenduari buruzko txostenetan.

### BESAIDE ERAGIKETA:

1 Bezeroa DCCn alta egin: (Kudeaketa komertziala > merkataritzako kontratua finkatu > Kontratua > Oinarrizko datuak > Merkataritzako beste produktu batzuk > Diruanitza)

2 Europako Batasunetik kanpoko txarteletarako deskontu-tasa mekanizatzea (Kudeaketa komertziala > Komisioak eta gastuak):  
-EBetik kanpo: %1,50

3 Kontratu berrian bezeroaren izenpea jasotzea